

# DEIALDIA

Ikasketa-programa /  
Jardun Artistikoen  
Institutua (JAI)



## PARTE HARTZEKO DEIALDIA: JAI – JARDUN ARTISTIKOEN INSTITUTUA

### 1- AURKEZPENEA

JAI (Jardun Artistikoen Institutua) artistei zuzendutako ikasketa-programa da, 2020az geroztik Tabakalerak (Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa - Donostia) eta Artium Museoa (Arte Garaikidearen Euskal Museoa - Gasteiz) koprodukzioan bultzatzen dihardutena. 2022tik, Jorge Oteiza Museoa Fundazioak kolaboratzen du ikasketa-programa honetan.

JAI programaren iraunaldia 8 astekoa da, eta artistek artistentzat diseinatutako proposamen pedagogikoetan oinarrituta antolatzen da. 2026eko edizioan, hauek dira JAI gidatuko duten hiru tutoreak: Ibon Aranberri (Itziar, Deba, 1969), Alejandro Cesarco (Montevideo, 1975) eta Itziar Okariz (Donostia, 1969).

JAI programako irakasleak Tabakaleraren eta Artium Museoaren erakusketa-programen arabera hautatzen dira, nahi honetatik abiatuta: ekoizpenaren, erakusketen eta ezagutzaren transmisioaren arteko lotura testuingurura zabaldu eta sakontzea, eta komunitate artistikoaren barruan trukerako espazio bat eraikitzea.

Tutoreez gain, JAI programako Ikasketa Batzordean daude Oier Etxeberria (Tabakalerako programa publikoen arduraduna) eta Catalina Lozano (Artium Museoko komisario burua).

Programak, Euskal Herriari lotutako testuinguru artistikoan errotuta, arte garaikidean ezagutza transmititzeko bi erakundeen tradizio berezia aitortzen du, eta etengabeko elkarrizketan oinarritutako programa pedagogiko eta esperimentala garatzea du asmo. Ezagutza horrek, alde batetik, artearen funtzio sozialari buruzko eztabaidarako alde aurreko jarrera eta, bestetik, bere praktika materialari buruzko etengabeko elkarrizketa uztartzen ditu.

JAI irakasle gonbidatu bakoitzari egindako galdera beraren inguruan egituratzen da: **Zure lan-prozesua definitzen duen zein ezagutza praktikoa zara gai beste pertsona batzuei transmititzeko?** Galdera honen erantzunak metodologia berezia eta askotarikoa onartzen du. Erantzun horien baturak, proposatutako ariketa, mintegi, tailer edo bestelako topaketen bidez, programa pedagogikoa eratzen du. Horrela, JAIk modu kolektiboan eta esperimentalean ikertzen ditu arteak jakintzak sortzeko duen gaitasuna eta espezifikotasuna eta horiek partekatzekeko estrategiak.

### 2- XEDEA

JAI jardun artistikoa ulertzeko modu desberdinen arteko elkarrizketak zabaltzeko baliabide gisa aurkezten da.

Planteatutako mekanikak lortu nahi duena da irakasle gonbidatu bakoitzak ikuspegi berezi bat eskaintzea arteak betetzen duen zereginaz eta, horretarako, hau da egiten zaien galdera: **Zure lan-prozesua definitzen duen zein ezagutza praktikoa zara gai beste pertsona batzuei transmititzeko?** Ezaugarri horrek lantegiko espazioan ehuntzen diren prozesuen luzapen gisa kokatzen du programaren metodologia.

Gasteizko Artium Museoa, eremu partekatu batean egingo dute lan ikasleek, eta bertan garatuko dira lantegiak zein mintegiak. Donostiako Tabakaleran, parte-hartzaile bakoitzari lanerako espazio



bat utziko zaio, partekatu ahal izango dena. Helburua da parte-hartzaileen proposamenen eta lanen garapen kritikoa sustatzea. Horretarako, jarraipen indibidualizatua izango dute tutoreen aldetik.

Illo horretan, proposamenak azpimarratu bezala, lantegian bertan garatzen den lana, taldean nahiz bakarka, garrantzi handiko alderdia da. Saiok Artium Museoan egingo dira Gasteizen, Tabakalera Donostian, eta Jorge Oteiza Fundazio Museoan Altzuzan, eta erakunde horietako bakoitzean abian jarritako programei lotuta daude.

JAIren garapenean inplikazio aktiboa izatea espero da parte-hartzaileetako bakoitzarengandik. Justifikatutako kasuetan izan ezik, eta alde aurretik batzordeari jakinarazita, ezinbestekoa izango da lanaldi osoko presentzia prestakuntza osoan zehar.

### **3- NORENTZAT**

JAIren helburua artearen metodologietan sakontzea da. Ez dago alde aurreko baldintzarik parte-hartzea eskatzeko.

### **4- PARTE HARTZEA ETA IZENA EMATEA**

JAIren Ikasketa Batzordeak gehienez 16 parte-hartzaile hautatuko ditu. Deialdia 2025ko abenduaren 23tik 2026eko otsailaren 16ra bitartean egongo da zabalik. Martxoaren 23an jakinaraziko zaie hautagaiei hautatuak izan diren ala ez.

JAIren Ikasketa Batzordea honela osatuta dago:

Ibon Aranberri (artista), Itziar Okariz (artista), Alejandro Cesarco (artista), Catalina Lozano (Artium Museoko komisario burua) eta Oier Etxeberria (Tabakalerako Programa publikoen arduraduna).

Ibon Aranberri, Itziar Okariz eta Alejandro Cesarco dira programako tutoreak.

Tabakalera Zentroaren, Artium Museoaren eta Jorge Oteiza Museoaren programetan parte hartzen duten artistak dira programako irakasleak. 2026erako irakasleen zerrenda honako hau da: Mariana Castillo Deball (Mexiko Hiria, 1975), Luidgi Beltrame (Marseilla, 1971), Nora Aurrekoetxea (Bilbo, 1989), Maddi Barber (Lakabe, 1988), Debris Stevenson (Londres, 1990), Carla Filipe (Aveiro, 1973).

### **5- MATRIKULA ETA BEKAK**

JAI ikasketa-programan prestakuntza jasotzeko matrikularen prezioa 400 €-koa da.

Bekak: Deialdi honen barruan, JAI Jardun Artistikoen Institutuak sei dirulaguntza eman ahal izango ditu, matrikula ordaintzetik salbuesten dutenak. Laguntza horrek ez luke, inola ere, lotutako bestelako gasturik barne hartuko, hala nola ostatua edo mantenua.

Ikasketa Batzordeak esleitzen ditu bekak, ibilbide artistikoaren interes mailaren eta eskatzaileen egoera sozioekonomikoaren arabera. Sei beka horietako bat eskuratu nahi dutenek parte-hartze dossierrean adierazi beharko dute berariaz, eta dirulaguntzaren beharra oinarritzeko eskatzen den dokumentazioa entregatu beharko dute, ondoren ebaluatzeko.



## 6- LEKUA ETA IRAUNALDIA

Prestakuntza **2026eko uztailaren 1tik abuztuaren 31ra** bitartean izango da.

**Uztailaren 1tik 26ra**, Artium Museoan, Gasteizen. Museoak lanerako espazio bana emango die parte-hartzaileei, eta artxiborako eta ikerketa-liburutegirako sarbidea izango dute.

**Abuztuaren 3tik 31ra**, Tabakaleran, Donostian. Bertan den artistentzako espazioko lantegia erabiliko dute batez ere. Denentzako diren gunetarako sarbidez gain, parte-hartzaile bakoitzak estudio bat izango du Tabakaleran egingo duen prestakuntza-aldian.

**Uztailaren 27tik 31era**, parte hartzaileak Altzuzara joango dira bertan egonaldi labur bat egiteko, Jorge Oteiza Museoaren Fundazioarekin ezarritako kolaborazioaren esparruan. Bai Altzuzara lekualdatzearen eta bertan ostatu hartzearen kudeaketa eta kostua matrikularen barruan sartzen dira, eta erakundearen kontura izango dira.

Hautatutako pertsonen Gasteizen eta Donostian ostatua bilatzen lagunduko zaie; ostatuaren kostua ez dago ikastaroaren matrikularen prezioan sartuta.

## 7- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Izena ematean onartu egiten da prestakuntza osora bertaratzeko konpromisoa, baita arauak errespetatzekoa ere, Artium Museoaren, Tabakaleraren eta Jorge Oteiza Fundazio Museoaren instalazioak eta ekipamenduak erabiltzeko ezarrita daudenak. Lantegiaren espazioa eta denbora helburu horretarako soilik erabiliko dira, ez beste proiektu batzuetarako.

## 8- HIZKUNTZAK

**Ingelesa izango da komunikazio-hizkuntza. Euskararekin eta gaztelaniarekin batera erabiliko da ikastaroaren hainbat unetan, eta emankortzat hartuko da hizkuntza-aniztasuna.**

## 9- ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1. CV eta biografia.
2. Motibazio-gutuna.
3. Aurreko lanen dossier digitala. Gehienez 10 orri.
4. Beka eskatuz gero, laguntzaren beharra oinarritzen duen dokumentazio espezifikoaren sartzea ondoren ebaluatzeko.

Dokumentazio guztia online erantsi beharko da dokumentu bakar batean, PDF formatuan, 10MBko gehieneko pisuarekin. Bideoek gehienez 3 minutuko iraupena izan beharko dute.

Izena emateko epea zabalik egongo da 2025ko abenduaren 23tik 2026eko otsailaren 16ra.

Deialdiaren ebazpena 2026ko martxoaren 23an jakinaraziko da. Hautatutako hautagaiak berretsi beharko du oinarri hauek onartu egiten dituela, jakinarazpena jaso eta astebeteko epean.



## 10- DATUEN BABESA

Hautagai eta/edo parte-hartzaile guztiek, baita hautatutako onuradunek ere, Tabakalerari ematen dioten dokumentazio grafikoa, testuzkoa eta/edo ikus-entzunezkoa —(i) eskaeraren esparruan eta, hala badagokio, (ii) oinarri hauen xede diren baliabideez hornitutako proiektua gauzatzean— jatorrizkoa dela eta ez dituela urratzen jabetza intelektualaren eskubideak. Ondorioz, Tabakaleraren, Artium Museoaren eta/edo Jorge Oteiza Fundazio Museoaren aurrean eta/edo horien hirugarren kolaboratzaileen aurrean erantzungo dute hirugarrenek material horiekin lotuta aurkez ditzaketen jabetza intelektualari buruzko erreklamazioen aurrean, eta erakunde horiei ordaindu egin beharko dizkiete kontzeptu horiengatik egin daitezkeen erreklamazioetatik erator daitezkeen kalte eta galera guztiak.

Oinarri hauek onartzean, onuradunek baimena ematen diete Tabakalerari eta Artium Museori eta Jorge Oteiza Fundazio Museori, Tabakalerari emandako dokumentazio grafikoa, testuzkoa edota ikus-entzunezkoa edozein euskarritan erabiltzeko, oinarri hauen xede diren zuzkiduren berri emateko eta horiekin hornitutako proiektua gauzatzeko helburu bakarrarekin.

Esandako guztian salbuetsita geratzen dira egile-eskubide moralak, eta jabetza intelektualaren ondare-edukiaren eskubide guztien titulartasuna, gorago aipatutako dokumentuei eta material grafiko, testuzko eta/edo ikus-entzunezkoei dagozkien horiena, haiek sortu dituzten onuradunen esku egoten jarraituko baitute.

## 11- PARTE-HARTZAILEEN IRUDI-ESKUBIDEAK

Parte-hartzaileek Tabakalerako, Artium Museoko eta/edo Jorge Oteiza Fundazio Museoko guneean hartutako irudietan (argazkiak, bideoa, etab.) agertu ahal direla onartzen dute, gero informazioa emateko edo sustapenatarako erabiltzeko, eta erabilera hori baimenduko dute; ohorea zaintzeko haien eskubidearen aurkako erabilera edo aplikazio oro izango da ezarriko diren salbuespena eta muga.

## 12- OINARRIAK ONARTZEA

Parte-hartzaileek, deialdira aurkezte hutsagatik, oinarri hauek onartzen dituzte.

Informazio gehiago:

[pgaraikideak@tabakalera.eus](mailto:pgaraikideak@tabakalera.eus)

(+34) 943 011 311

[www.tabakalera.eus](http://www.tabakalera.eus)

[Jai aurreko edizioak. Kontsultatu hemen:](#)

[JAI](#)